

Aizabeko Sagardotegia

BIZARGORRI

29/1/92

«Antxuan txuri, arlantxan gorri, defotan beltz..., zer dela pents!». Halamoduzko ibilerak izandu ziren gureak joan den ostiralean, bakoitza punta banatatik etorri eta zortzi adiskide Oiartzungo Aizabe baserriera bildu ginanean, geure uztao sagardoari txotx egitera. Totx eta ez motx, alazankoa! Lagunarteko afari bat ezin inola ere kabitu liteke orri batean, baina saiatuko naiz ahalegin.

Askorendako oraindainokoan sagardotegia ezkola izan bada ere, guretzat, eskola ez-ezen, bada eskolatik (haur ikasle pila eta andereño lankide andanatik) itzuri, ihesi joateko aitzakia ere. (Zertan arituko gara zurikerietan: halaxe da eta kitol!)

Esana dut arestian zenbat ginen, ez ordea nolako. Irungo seme bi, Estonba eta Sarriegi, aitari irabazteko gauza dagoen pilotari bixkorra hura eta keniarren beltzak zuritzenagotzen duen krosleri azkarra bestea. Amuteko Olamusu, beti horren osasuntsu; haren autoa Vanette: sartu-ta-sartu eta halare ezin betel! Martzial Alzateko, beti azkena etzateko. Amaiurko Joxe, kolesterola ere gosea hainakoxe. Behobiko Eustasio, orainarte despasio, ail baina Audi berriarekin aurki Nikasio. Gure Jon Aizabekoa, leno sasoi hobekoa, gripearekin etorri eta bakarrik jun zenekoa.

Aizabeko jaun Joxek tolarea ba-zeukala-eta animatu ginen lan berriotara. Behobiko Harrobietan sagarra sobera, Aizaben tolarea libre, denok ere sagarra jotzeko prest..., beraz, haritz egurrezko ehuna litroko kupeltxo pareta erosi, esanak egin eta horra geure sagardo gorria edateko parada ilbeltzeko hotz zuriekin batera. Kupel bateko eta besteko sagardoa arrunt diferentea atera zaigu. Bertako sagarrak, nahasi proportzio berean botata, ez dakit nola arraio eman dezaken hainbesterainoko alderik. Oraingoiz goiz omen da hala ere, eta etorriko omen dira hobera. Egingo omen dira.

Kontua da, sagardo natural polita aitzaki, Mañularen tortilak eta Estonbaren amonaren bakallauak eta auskalo nondikako txuleta jenez, erreak eta egosiak onerako izandu zirela. Bejondeigula...! Lepahezurreraino bete eta bapo jarri ginen behintzat kanturako, hamarretan hasi eta ordu txikiak ere haunditzera-haunditzera egiten duten arte, belar ondu pilaren atzeko ardien beeeak eta behien makakorrokak lagun. Tarteka kanpora er-ten eta..., gau beltzaren izar zuriei begira, gorriaren parrastadan jartzen ginen, lurrun jarioan.

Edan, kanta eta pizzez, apenas geratu zitzaigun boteiletaratzeko sagardorik kupeletan. Apenas hogeitalauna. Baina beti ere izaten baita besteak baino lan geheixea-go egin duenik, hari bat gehiago jarri genion ordainsari; berak uste ez bezalakoa, solamente.

Sagardotegiko eskolan ere ikasi egiten baita, hona Amaiurko artzaiak irakatsi zigun asmakizuna: «Antxuan txuri, arlantxan gorri, defotan beltz..., zer dela pents!». Antxua, urtebete barruko bildotsa omen da («beñardie» Aralarren eta Urbian); arlantxa, bizpauru urtekoa («arkaztea»); eta defota, aldiz, hiru urtetik gorakoa (hau da, «ardie»). Txuri-gorri-beltz, masustaren hiru adinetako jantziak. Masusta, beraz.

Halatsu geu ere Aizaben: txurixuri sartu ginen, gorri-gorri eginda jarri eta beltzak ikusteko geunden bide estu okerrean behera abiatu ginenean. Eskerrak genituen txoferrak ere okerrean onak eta esker-rrak, batez ere!, ez zitzaigun mitsutsetatik (Berako izotz zuria omen) ertzain gorririk agertu...! Deskuiduan puxika puzten jarri bagintuzte, asko beltzarenak ikusteko bait geunden handik gerora!

Gertako ibili loa galduta, buruhaustea buruhaustearen ondotik? Horrelakoetan ez da lotarako pastila beharrik. Berrizko ere prest gaude. Nahi duzun arte, Aizabe.